

UDALTZABARRAREN AKORDIOA

2013-12-26

ZIURTAGIRIA

IÑIGO GARITANO LARRAÑAGA Jauna ARRASATEKO UDAL AGURGARRIKO IDAZKARIA

NEUK ZIURTATUA: Udal Plenoak, 2013ko abenduaren 26an egindako bilkuran, besteak beste, honako akordioa hartu zuen:

“2014 URTEALDIKO UDAL AURREKONTUAK ONARTZEA (2013DPRE0001).

Udal Plenoak, Udal Korporazioa osatzen duten 21 zinegotzietatik bilkuran 20 daudela, 16 zinegotziren aldeko botoekin (11 BILDU, 4 EAJ-PNV eta 1 ARALAR) eta 4 zinegotziren aurkako botoekin (4 PSE-EE), Ogasun Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Alkateak 2014ko Aurrekontuen proiektua aurkeztu du, aztertu eta eztabaidatzeko. Agiri horrek oinarria du udal sailetakoek egindako eskaeretan, eta Ogasun Batzordera bidali dute, izapidetzeko.

Hartarako emandako epean, hainbat izaera duten aldaketa proposamen batzuk aurkeztu dira. Zehazki, aldaketa proposamenetako batzuek izaera teknikoak dute eta zehazkiak dute zenbaterako aldaketa batzuekin, aurrekontuaren agiria egiteko unean informazioa eguneratzeagatik (zerbitzu mankomunatuengatik) kuotak, sarrerako diru-laguntza zenbaterako baten berraztertzea eta beste egokitzeko txiki batzuk). Proposamenetako beste bat da Goiru-Mugarri errepide zatiaren eskumena eskualdatzeko Foru Aldundiarekin sinatu beharreko hitzarmenaren sartutako aldaketa batengatik, aurrekontuan desorekarik sortzen ez duena, gastuen eta diru-sarreraren kopuruetan berdin eragiten baitu. Azkenik, beste proposamen batzuek erantzuten diote udaleko gobernu taldeak, AUKEAren aurrekontuari eragiten diona (eta Udalak ordaindu beharreko defizitari), kirol entitateentzako diru-laguntzen diru-kopurua gehitzea dena, nabiz EAJ-PNV udal taldeak, Enplegu sailaren jarduerak eta programa finantzatzeko den kontu-sailaren diru-kopurua handitzeko eta hainbat kontu-sailen (igogailu publikoak zaintzea, proiektu edo azterketa teknikoak, Gabonetako argiak, eta abar) diru-kopurua gehitzeko eskatzen dutenak, planteatutako hainbat zuzenketari.

Horiek botazioan jarri eta gero, bai eta horien finantzaketa proposamena ere (beste kontu-sail batzuen diru-kopuruak murriztuz eta maileguen bidez), BILDU, EAJ-PNV eta ARALAR udal taldeetako ordezkarien aldeko botoarekin eta PSE-EE udal taldearen abstentzioarekin, onartu egin dituzte zuzenketak eta aldaketak, Gabonetako argienari buruzkoa izan ezik eta, horren ondorioz, 2014ko Aurrekontuen proiektuan sartu dira.

*Hortaz, batzordean onartutako zuzenketak sartu eta gero, **2014ko ekitaldiko aurrekontu orokorren proiektuak, udalbatzarrak onartu dezan jarri dena, HOGEITA HAMABOST MILIOI BOSTEHUN ETA HOGEITA BEDERATZI MILA ETA EHUN ETA LAU EURO ETA HIRUROGEITA BAT ZENTIMO (35.529.104,61) egiten du, eta aurrekontu horretan sartuta danda Udalaren beraren aurrekontua, HOGEITA HAMA MILIOI ETA ZAZPIEHUN ETA HAMA MILA ETA SEIHUN ETA LAU EURO ETA HIRUROGEITA BAT ZENTIMOekin (31.711.604,61 €) eta Iturbide Egoitza eta AUKEA erakunde autonomoetako aurrekontuak, hurrenez hurren, HIRU MILIOI ETA LAUREHUN ETA HIRU MILA ETA***

SEIHUN ETA HIRUROGEITA HAMAIIKA EURO ETA LAUROGEITA SEI ZENTIMOREkin (3.403.671,86 €) eta MILIOI BAT ETA SEIHUN ETA HOGEITA BAT MILA ETA ZAZPIEHUN ETA HAMABOST EURO ETA HAMAIIKA ZENTIMOREkin (1.621.715,11 €).

Proiektu hori aztertu eta gero, aurrekontuetako kontu-sailak eta aurrekontu horietako bakoitzaren betetzeko arauak barne hartzen dituena, Ogasun Batzordeak aldeko txostena aurkezten dio Udalbatzarrari, BILDU, EAJ/PNV eta ARALAR taldeetako ordezkarien aldeko botoarekin eta PSE-EE taldeko ordezkariaren abstentzioarekin, akordio hau hartu dezan:

- 1.- Hasiera batean onartzea 2014ko ekitaldiko aurrekontu orokorra. Barne hartzen ditu Udalaren beraren aurrekontua nahiz ITURBIDE EGOITZA eta AUKEA erakunde autonomoen aurrekontuak, aurrekontu bakoitzaren betetzeko arauarekin batera, eta Udalaren beraren aurrekontuaren konpromiso kredituen eranskina ere bai.*
- 2.- Espedientea jende aurrean erakustea, interesdunek aztertu eta bidezkoztat jotako erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten, 15 egun baliouduneko epean jende aurrean erakusteko iragarkia argitaratzen dutenetik Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.*
- 3.- Espedientea behin betiko onartzea, jende aurrean erakusteko aldi horretan aurrekontuaren aurkako erreklamaziorik jaso ezean.”*

Eta honela jasota gera dadin eta ondorio egokiak sor ditzan, ziurtagiri hau luzatu eta sinatzen dut, Alkateak agindu eta ontzat emanik, Arrasaten, 2014ko urtarrilaren 2an

**O.E.
ALKATEA**